



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Espediente zk. 026/000711

Pasaia, 2026ko Urtarrilak 26an

1. XEDEA

AZTI Fundazioak **hiru zentroetako bost SAI ekipoen mantentze zerbitzua azpikontratatziorako** lehiaketa publiko bidezko lizitazio-prozedura ireki dela iragarri du.

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzua **gehienez bi (2) urteko epean** egingo da, Kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Kontratua urtez urte luzatu ahal izango da automatikoki, aldeetako edozeinek aurkakoa erabakitzen ez badu behintzat, eta aldeetako batek beste aldeari idatziz adierazten badio, hasierako epea edo edozein luzapen amaitu baino hilabete lehenago. Kontratuak, luzapenak barne, ez du 5 urte baino gehiago iraungo

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa **bost mila seiehun eta berrogeita hamar eurokoa da (5.650,00€)**, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa Zerbitzua behar bezala entregatzen denean egingo da, eta faktura jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko da, Zerbitzuaren ardura duen AZTIko pertsonak adostasuna ematen duenean.

Baja ausartegiak: Lizitazio honen testuinguruan, *baja ausartegitzat hartuko dira merkatuko batez bestekoa baino prezio nabarmen txikiagoa duten eskaintzak, eta zalantzak sortuko dira bideragarritasunari eta ezarritako kalitate-estandarrak betetzeari buruz. Baja ausartegitzat joko da lizitazioaren iragarkiaren 3. puntuan adierazitako gehieneko prezioaren % 50eko edo hortik beherako prezioa duen edozein eskaintza.*

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doikuntza teknikoa	%30
Hobekuntzak	%10
ESK politikak	%5
Berdintasun Plana	%5

5. BALDINTZA TEKNIKOAK

Baldintza teknikoak jasotzeko, proposamen bat aurkeztu nahi dutenek konfidentzialtasun-akordio bat sinatu beharko dute. Akordio hori posta elektroniko bidez eskatu beharko dute hurrengo bi helbideetara, gaian beti espedientearen zenbakia adieraziz.

- licitaciones@azti.es
- alizaso@azti.es

Konfidentzialtasun-akordioa eta lizitazio honen baldintza teknikoak eskatzeko azken eguna **2026ko Otsailaren 2ko 12:00ak** arte izango da.

Baldintza teknikoak jaso ondoren, lizitatzailleek honako kontaktu honetara jo dezakete **informazio tekniko gehigarria** eskatzeko:

AZTI

Norentzat: Iosu Lizaso Saizar

Tel. 34 658 758 167

Mail: ilizaso@azti.es eta licitaciones@azti.es

6. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatzailleek bi helbide elektronikoetara aurkeztu beharko dituzte beren proposamenak: licitaciones@azti.es eta alizaso@azti.es helbideetara edo AZTIren edozein zentrotara, betiere lizitazioaren espediente-zenbakia adieraziz, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2026ko Otsailaren 16ko 12:00ak** arte.

7. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

8. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Dokumentaziorako, hautatutako erakundeak, www.azti.es webgunean argitaratutako Kontratazioari buruzko Barne-Araudia bete beharko du.
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jarduerari buruzko dokumentazioa, etab.).
- Hautatutako hornitzaileek, ahal den guztietan, AZTIri emandako produktuen/zerbitzuen karbono-aztarnaren datua eman beharko dute. Halakorik ezean, behar adina datu eman beharko dituzte produktuen konposizio-materialei, pisuei eta enbalajeen ezaugarriei buruz, AZTIra bidaltzeko barne-logistikari eta logistikari buruz, eta abar, emandako produktu/zerbitzurako erabiliak, AZTIk lizitazio honen esparruan sortutako karbono-aztarna neurtu ahal izan dezan. Mesedez, informazio hau huellacarbono@azti.es helbidera bidali.

9. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopdp@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeke eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritzak eskumendunaren aurrean.

10. BESTE BATZUK

- Esleipendunak (erakunde juridikoa, erakunde juridikoen elkarteak, pertsona indibidualak, pertsonen elkarteak...), baita lizitazioari erantzuteko edo lizitazioaren xedea betetzeko parte hartzen duten beste erakundeek edo pertsonak ere, hautagaitza aurkeztu duten edo ez alde batera utzita, konpromisoa hartzen dute lortutako informazioaren konfidentzialtasuna gorde eta mantentzeko eta sekretu profesionala gordetzeko, eta, beraz, ezagutzen eta lortzen duten informazioa ez diete parte hartu ez duten langileei edo hirugarrenei erakutsi, jakinarazi edo ezagutaraziko.
- Informazio konfidentzialtzat jotzen da esleipendunak eta/edo AZTI Fundaziotik kanpoko erakunde edo pertsonak, lizitazioari erantzuteko edo kontratua gauzatzeko, modu bisualean, ahoz, zuzenean edo zeharka, lortzen duten edozein informazio, besteak beste, informazio zientifiko, tekniko, finantzario, legal, fiskal eta komertziala, negozio eredu eta estrategiak, "know-how", bezero eta bazkide

posibleen izenak, proposatutako edo azterketa fasean dauden edonolako proiektuak eta eragiketak, datuak, algoritmoak, txostenak, planoak, merkatuko proiektzioak, laneko analisiak eta dokumentuak, bildumak, konparazioak, azterketak eta, oro har, eskuratutako informazio guztia, bai kontratua gauzatu aurretik lortutakoa, bai ondorengoa.

- Konfidentzialtasun betebeharrak eta informazio konfidentziala ez erabiltzeko betebeharrak indarrean jarraituko dute informazio konfidentziala jende guztiak dakien gauza ez den bitartean, eta egoera hori ez da izan behar informazio konfidentziala eskuratu duten esleipendunak eta/edo erakunde edo pertsonak beren betebeharrak bete ez izanaren ondorio.
- Esleipendunari dagokionez, kontratua amaitu aurretik, bitartean edo ondoren eskuratu duen informazio konfidentziala isilpean gordetzeko eta ez erabiltzeko betebeharra ez da iraungiko kontratua betetzen denean. Esleipendunak kontratua gauzatzean, modu independentean edo AZTIrekin batera, lortutako edo sortutako informazio konfidentziala (lortutako emaitzak) edo horren zati bat bakarrik erabili ahal izango du kontratu hau garatzeko, eta ez du beste erabilerarik egingo.

Esleipendunak modu erreserbatuan erabiliko du informazio konfidentziala eta ez du zabalduko ez jakinaraziko, eta esleipendunarekin duten harremanagatik, informazio hori eskura eduki dezaketen edo eduki behar duten bere langileei, bazkideei, azpikontratatuak eta beste edozeini informazioa eskuratzeko sarbidea murriztu beharko die, konfidentzialtasuna betetzeko beharra dutela ohartarazita. Esleipendunaren langileek, bazkideek, azpikontratatuak edo hark emanda informazio konfidentzialaren berri izan duten pertsonak betebeharrak betetzen ez badute, esleipenduna izango da erantzulea.

Nolanahi ere, erabat debekatuta dago kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta ez dauden informazio, datu eta dokumentuetara sartzea, eta nahitaezkoa da ezagutzen direnak isilpean gordetzea.

Esleipendunak ezin izango du Informazio Konfidentziala erabili, ez zuzenean, ez hirugarrenen bidez: a) edozein eragiketa komertzialetan hasi, eskaini, negoziatu, kontratatu edo sartzeko, edo horrekin lor daitekeen edozein onura lortzeko b) produktuak, soluzioak, zerbitzuak eta know-howa garatu eta, hala badagokio, teknikoki hobetzeko c) patenteen bidez, erabilgarritasun modeloen edo jabetza intelektuala eta industrialak babesteko beste edozein sistemaren bidez, produktuak, soluzioak, metodoak eta abar babesteko.,

- Lizitazio honen kontratua gauzatzearen ondorioz esleipendunak edo horrek eskatuta diharduen beste edozein pertsona fisiko edo juridikok –laneko lotura izan edo ez– lortutako emaitzen gaineko eskubide guztiak AZTI Fundazioaren titulartasunpekoak eta bakarrik horren menpekoak izango dira, muga geografikorik edo denborazko mugarik gabe, emaitzatzat hauek hartuta: produktuak (letra tipoaren kodea, algoritmoa, softwarea, hardwarea, plataforma digitala, aplikazioak,

etab.), zerbitzua (kontsultoretza, aholkularitza, digitalak, etab.), dokumentazio teknika edozein formatutan (txostenak, fluxu diagramak, datuak, etab.), soluzioak (digitalak, software plataforma, programak, aplikazioak, etab.) eta/edo informazioa, horien aterakinak edo erreplikak barne. Emaizten, sortutako ezagutzaren edo sor daitekeen edozein jabetza intelektual edo industrialen edozein erregistroren gaineko ustiapen eskubideak eta jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak (adibidez, patenteak, etab.) eta/edo horien ondoriozko emaitzen, ezagutzaren edo jabetza intelektual edo industrialaren erregistroaren gainekoak AZTI Fundazioarenak izango dira, eta, beraz, edozein aktibo ukigarri eta ukiezinen ustiapena, edozein dela ere horren forma edo izaera, babestuta egon edo ez, baita horien ondoriozko eskubide guztiak ere, AZTI Fundazioarenak izango dira.

Esleipendunak, eta, hala badagokio, bertako langileek, jabetza intelektualaren eskubideei, emaitzei, sortutako ezagutzari edo sor daitekeen jabetza intelektualaren edo industrialaren edozein erregistroari (adibidez, patenteak, etab.) eta/edo aurrekoen ondoriozko jabetza intelektualaren edo industrialaren emaitzei, ezagutzari edo erregistroari dagokienez, jabetza intelektualaren eskubideen lagapena egingo dio AZTIri, eta hark lagapena onartuko du, honela:

- Lagapen eskusiboa eta lagapenaren prezioa 300 eurokoa izango da, eta esleipendunak eskaintako prezioaren barruan dagoela ulertuko da.
 - Lagatzen diren ustiapen-eskubideak erreproduzio-, banaketa-, komunikazio publiko- eta eraldaketa-eskubideak dira, egun dauden eta ezagutzen diren ustiapen-modalitateetako edozeinetan.
 - Lagapenaren denbora-eremua: Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako gehieneko iraupena, hau da, jabari publikora igarotzen den arte.
 - Lurralde-eremua: ustiapen-eskubideen lagapena munduko herrialde guztietara hedatzen da.
- Esleipendunak ezin izango du AZTI Fundazioak emaitzen gaineko edozein eskubide eratorri babestearen aurka egin, eta ezin izango du emaitzarik zabaldu edo argitaratu, salbu eta AZTI Fundazioak baimen idatzia ematen badu eta baimen horren baldintzak betez. AZTI Fundazioak edozein erregistro bulegotan emaitzak babestea edo erregistratzea erabakitzen badu, egileen egiletza aitortuko da, bai AZTI Fundaziokoak badira, bai enpresa esleipendunekoak badira, baldin eta erregistratutako garapenean parte hartu badute.
- AZTI Fundazioak eskubidea izango du emaitzak aldatu, transferitu, entregatu, banatu edo hirugarrenei banatzeko, helburu komertzialekin edo ez, edo behar duen edozein jarduera egiteko. Halaber, esleipendunak AZTI Fundazioari emaitza osoak eman beharko dizkio (adibidez, letra tipoaren kodea, etab.), eta AZTIk, horien jabe den aldetik, zuzenean edo hirugarrenen bidez, emaitzetan oinarritutako lan eratorriak sustatu ahal izango ditu, eta hobekuntzak eta hortik eratorritakok AZTIren jabetza eskusiboa izango dira.

- Esleipendunak aitortzen du, kontratua gauzatu aurretik, AZTI Fundazioa hauen jabe dela: produktuaren edo soluzioaren ideia eta kontzeptua/prototipoa, produktuak edo soluzioak izan behar duen funtzionaltasunaren, eraginkortasunaren eta interkonektibitatearen diseinua, datuak (datu motak, jatorria, kudeaketa eta tratamendua, etab.) eta know-howa (AZTI Fundazioaren aurretiazko ezagutza). Horrela, AZTI Fundazioak, aurretiazko ezagutzaren eta emaitzen titularra den aldetik, zuzenean edo zeharka ustiatu ahal izango ditu, berak iritzi bezala.
- Esleipendunak ezin izango ditu, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, emaitzak ezein pertsona fisiko edo juridikori transferitu, bitarteko elektronikoen bidez edo beste modu batean, eta ezin izango ditu emaitzak aldatu, itzuli, alderantzizko ingeniariatza aplikatu, deskonpilatu, saldu, transferitu, azpilizentziatu, argitaratu, zabaldu edo kontratua gauzatzean lortutako emaitzetan oinarritutako lan eratorririk sortu. Esleipendunak, beraz, ezin izango du AZTI Fundazioaren negozio estrategia mugatu dezaketen emaitza lehiakorak (produktuak, soluzioak, zerbitzuak, dokumentazio teknikoa) merkatura eramateko ekintzarik egin.
- Emaitzak erabiltzeko beharrezkoa denean (adibidez, letra tipoaren kodea, softwarea, aplikazioak, etab.), esleipendunak kontratu honen aurretiko ezagutzaren lizentzia ez-esklusiboa eta besterenezina emango dio AZTI Fundazioari, lizitazioan ezarritakoaren gaineko gainkosturik gabe. Kontratua amaitzean entregatutako emaitzak (produktuak, soluzioak...) guztiz funtzionalak, operatiboak eta beste batzuekiko independenteak izan behar dira, eta ez dute inolako mugarik ekarriko emaitzen erabilerari dagokionez, ezta erabiltzeko kostu gehigarriak ere.
- Lizitazio honetan informazio konfidentzialaren konfidentzialtasunari eta ez erabiltzeari buruz ezarritako baldintza guztiak, baita jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideei eta emaitzen eta sortutako ezagutzaren gaineko ustiapen eskubideei dagokienez ezarritakoak ere, gailendu egingo dira erakunde esleipendunarekin ondoren sinatzen den eta lizitazio honetan ezarritako baldintzekin gatazkan egon daitekeen edozein akordioaren gainetik.
- Esleipendunak onartzen du AZTI Fundazioaren izenaren edo deituraren titulartasuna eta merkatuan dituen produktu edo zerbitzuen bereizgarri diren zeinu bereizgarri guztiena AZTI Fundazioarenak direla eta hala izaten jarraituko dutela. Esleipendunak ez du inolako ekintzarik egingo, ezta AZTI Fundazioaren zeinu bereizgarrien baliozkotasunari eragin diezaiokeen neurririk hartuko ere, eta konpromisoa hartzen du ez erregistratzeko edo eskatzeko, ez bere izenean ez hirugarren baten alde, AZTI Fundazioaren izen komertzial, domeinu izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriak edo horien antzekorik, baldin eta AZTI Fundazioaren jardura, prestazio, produktu edo establezimenduarekin nahasmendurik sor badezakete.